



2012-10-08

**Erabakia, aldezlearena, ebaluazio bereziaren prozedurari dagokiona: errekurtsok aurkezteko epeei buruzko hausnarketa eta ebaluazio bereziarako epaimahaien erabakietan motibazioa espresuki adierazteko gomendioa, bai eta ebaluaziorako irizpideei zabalkundea ematekoa ere.**

Ekainaren 3an jaso zen erakunde honetan UPV/EHUko ikasleen kontseiluak igorritako idazkia, 2011/2012 ikasturterako lehenengo eta bigarren zikloetako graduako irakaskuntzaren gestio-arauegia bete ez delako kexa aurkeztuz, ebaluazio bereziari dagozkion artikuluetan.

Kexa, zehazkiago, hiru alderdi zehatzi buruzkoa da, curriculum-ebaluazio bereziaren prozesuan disfuncionalitatearik dakartelakoan eta zuzendu beharrekoan direlakoan:

### **1. Erabakitzeko eta errekurtsok aurkezteko epeak**

Kexa egiteko idazkian adierazten da gestiorako arautegiak bere 55. artikuluan xedatzen dituela erabakitzeko eta errekurtsok agertzeko epeak. Zehazkiago esateko, ikasleak ebaluazio berezia eskatu behar du martxoaren 15a baino lehen, ikastegiko ebaluazio berezirako epaimahaiak martxoaren 31a baino lehen ebatzi behar duela eta, erabakiarekin ados ez balego, ikasleak errekurtsok aurkeztu ahal izango du apirilaren 10a baino lehen gobernu-kontseiluaren ebaluazio berezirako epaimahaiaren aurrean, errekurtsok hori apirilaren 30a baino lehen ebatzi behar delarik.

Ikasleen kontseiluaren aburuz, arautegiak epeak zehaztutakoan, errekurtsok aurkezteko data zehatzak adierazita, zenbait kasutan, egoera nabarmen bidegabekoak eragiten dira, ikasleek gobernu-kontseiluaren ebaluazio berezirako epaimahaiaren aurrean errekurtsok agertzeko eskubidea kaltetu eta urritzen dutenak, egutegiaren eskuetan lagatzen dutelarik. Kontutan hartu behar da baldin eta ikastegiko ebaluazio berezirako epaimahaiak, gertatu ohi den bezala, erabakia emateko epea agortzen badu, ikasleari 10 egun besterik ez zaio gelditzen jakinarazpena jaso eta errekurtsok egiteko; honetara, aurrean halaxe gertatu baita, aste horien artean jaiegunak suertatu badira (Aste Santua), ikasleari lanegun bat edo bi besterik ez zaio geratzen errekurtsok ebaluazio berezirako epaimahai nagusiaren aurrean unibertsitateko erregistroan aurkezteko.

Ikasleek uste dute egoera hau zeharo bidegabekoa dela eta arautegia epeei dagokien atalean aldatu beharra eskatzen dute, epearen amaiera xedatzen duten data zehatzen orde, lanegun-kopurua zehaztuz, erabakiaren jakinarazpenetik hasita kontatu beharrekoak.



## 2. Ebaluazio berezirako epaimahaiaren erabakien motibazioa.

Ikasleen kontseiluak adierazten duenez, ikastegiko ebaluazio berezirako epaimahaiak igorritako erabakiak ez ohi du inolako motibaziorik agertu. Erabakia "aurkakoa" dela besterik ez du aipatzen, errekurtsoa egiteko lehen aipatu diren epeei buruzko informazioa gehituta.

Ikasleek egindako idazkian 30/1992 legearen 53.1 artikulura jo dute, beronen arabera "Herri-administrazioen egintzak (...) eskumena duen organoak gauzatuko ditu ezarritako prozedurari jarraituz", honako kasu honetan gestiorako arautegiak jasotako prozedurari jarraituz, alegia.

Eta, aipatutako legearen 54.1 artikulua dioenaren arabera, "Arrazoitu egin behar dira, egitateen eta zuzenbideko oinarrien aipamen laburra ere eginez" (...) "(...) administrazioaren kabuz berrikusteko prozedurak, administrazio-errekurtsioak, auzibidera jo aurreko erreklamazioak eta arbitraje-prozedurak ebatzen dituzten" egintzak.

Arlo honetan, ikasleek nabarmentzen dute aipatu legearen 62. artikulua dioela ezen administrazio-egintzak zuzenbide osoz deusezak direla "Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman badira".

Esku artean daukagun kasuan, ebaluazio berezirako epaimahaiak, erabakiak ezelako motibaziorik gabe ematerakoan, prozedura arautzen duen gestiorako arautegian ezarritako prozedura bete ez eta hausten ari da, zeren eta 57.3 artikuluan xedatzen baitu ezen "Idazkariak bileraren akta egingo du, kasu bakoitzean hartutako erabaki arrazoitua jasota. Erabakia eskariaren aldekoa edo kontrakoa besterik ezin izango da izan".

Artikulu hauen aplikatuz, ikasleen kontseiluak ondorioztatzen du ebaluazio bereziko epaimahaiaren erabakiak, bai ikastegikoarenak, bai gobernu-kontseilukoarenak, behar bezala motibaturik ez badaude, *zuzenbidez osoz deusez eta baliogabe aldarrikatu behar direla*, erabakiok eragin dituzten irizpide edo zioak zeintzuk izan diren argi azaltzen ez dutelako eta, hortaz, errekurtsogileari defentsa-ezintasuna eragin diotelako, errekurtsioan alegatu beharreko alderdi zehatzak ez dakizkielako.

## 3. Ebaluazio berezirako epaimahaiak eskariak balioesteko erabiltzen dituen irizpideen argitaratzea

Ikasleen kontseiluak salatzen du ohikoa dela (eta erabaki bat agertu digu salatutakoaren lekuko gisa) gobernu-kontseiluaren ebaluazio berezirako epaimahaiari egindako errekurtsioari ikastegikoaren ezezko erabakia baieztatuz erantzun ohi zaiola, baieztapen hau motibatu barik eta ikasleari egindako eskariaren ukatzeko zioen berri eman gabe. Aipatzen du epaimahai horren erabakietan nolabaiteko erantzun ohikoa jasotzen duela honetara "UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren epaimahai bereziak aztertu egin ditu ikastegiko epaimahai bereziak bidalitako dokumentuak eta txostena sailaren txostena,



eskarietarako buruzko erabakiak hartzeko onartutako irizpideak, ikasle; hori guztia ikusita, eta testuinguru osoa kontuan izanda.”

Ikasleek eskatzen dute ezen, hori horrela bada, epaimahaiak sailak egindako txostena, ikastegiak irakasgai bat ebaluazio bereziaz gairak ahal izateko irizpideak eta ikaslearen ibilbide eta etekin akademikoa aztertzen baditu, datu hauek guztiak erabakian agertu beharko lirarteke, eskaria ez onartzeko motibazio gisa. *Gutxienez delako, ikastegi bakoitzak eskari hauek balioesteko baliatzen dituen irizpideak ezagutu behar dituztela eskatzen dute.* Uste dute irizpideok ikastegiak espresuki agertu beharko lituzketela tokian tokiko ikasleek ezagut ditzaten, ebaluazio bereziko eskariak egin baino lehen, jakin dezaten ikastegi horretan eskariak onetsi edo ezesteko baliatuko diren irizpidean zeintzuk diren. Salatzeko dute, gaur egun, ezinezko suertatzen dela ikastegiak arlo honetan onetsitako irizpideak zeintzuk diren jakitea. Hortaz, defentsa-gabezia latza deritzote ebaluazio bereziko eskariak, teoriarik egon ba diren irizpideen arabera ezetsi eta ezesteko erabakiaren zio izan eta irizpideok zeintzuk diren ezin jakiteari.

Egindako kexa tramitera onetsita, aldeak geure unibertsitatearen ebaluazio bereziko arauen multzoa aztertzei ekin dio, aipatu diren hiru alderdion gaineko pronuntziamentua emateko.

UPV/EHUren **gradu eta lehenengo eta bigarren zikloetako irakaskuntzetarako 2012-2013 ikasturteko gestio-arauegiak** V. kapituluaren barruan, irakaskuntza-ikaskuntzaren plangintza eta ebaluazioa deritzon arautzen du ebaluazio berezia 54tik 59ra bitarteko artikuluetan.

55. kapituluak xedatzen du ezen:

- 1.- Ikasleek ebaluazio berezia eskatu ahal izango dute ikasturte bakoitzeko urrian eta martxoan. Eskaria egiteko azken eguna hilaren 15a izango da kasu bietan. Ikastegietako epaimahai bereziek martxoaren edo urriaren 31 baino lehen hartu beharko dute erabakia, hurrenez hurren.
- 2.- Erreklamazioak urte bakoitzeko apirilaren edo azaroaren 10a baino lehen (deialdiaren arabera) aurkeztu beharko zaizkio Gobernu Kontseiluko epaimahai bereziari, eta hil beraren 30a baino lehen ebatziko dira. Erreklamazioa behin ebatzita, eta ikaslea ados ez badago, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio errektoreari, hilabetearen epean, gobernu kontseiluko epaimahai bereziak bere erabakia jakinarazten duenetik hasita.

Idazketa honetan, ezer baino lehen, gauza bat nabari da. Hain zuzen, goranzko errekurtsorako eskubidea baliatu ahal izateko, hilabetearen epea aurreikusten bada ere, erabakia jakinarazten denetik kontaktzen hasita, arrazoizkoa baita eta logikaren gabea jakinarazi ez denaren aurkako helegitea jartzea, aurreko epe honetan, gobernu-kontseiluaren ebaluazio bereziko epaimahaiari errekurtsioa egiteko, amaiera-eperako data bat ezartzen da, apiril edo azaroaren 10a, baina ez da aintzat hartzen jakinarazpenaren egintza ezinbestekoa.

Erakunde honek ez deritza egoki, bidegabeko egoerak eragin ahal dituelarik, gorago transkribaturiko 55. artikuluen 2. atalak jakinarazpenaren egintza ez jasotzei, berorrek



eragiten baitu, jakinarazpena berandutu edo gertatu ez bada ere, errekurtsua aurkezteko epearen amaieraren gainean ondoriorik ez izatea, apirilaren edo azaroaren 10ean mugiezin mantenduta. Aldezleak uste du jakinarazpenaren egintza espresuki jaso behar dela aipatutako artikuluan. Honetarako, bi ebazpide lirateke:

1. Errekurtsua egiteko muga-datak mantendu, apiril eta azaroaren 10ean, 55. artikuluko lehenengo atalaren idazketa aldatuz, ikastegiko ebaluazio berezirako epaimahaiak urriaren edo martxoaren 31a baino lehen, hurrenez hurren, ebatzi eta *jakinarazi* beharko duela xedatuz.
2. Ikastegiko ebaluazio berezirako epaimahaiak, hurrenez hurren, urriaren edo martxoaren 31a baino lehen ebazteko duen epearen muga-datari eutsi eta ondoren, *egunetan* jarria, epe bat ezarri gobernu-kontseiluaren ebaluazio berezirako epaimahaiaren aurrean egin beharreko errekurtsua jarri ahal izateko. Kasu honetan, Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Administrazio-Prozedura Bateratuari buruzko legearen 48.1 eta 48.4 artikuluetan xedatzen den legez, egun hauek lanegun gisa ulertu behar dira eta jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasitakoak.

48.1.- “Epeak jartzerakoan egun guztiak hartu nahi badira kontuan, horren berri eman behar da jakinarazpenetan”.

48.4.- “Egintza jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita zenbatuko dira egunetan adierazitako epeak, edo administrazio-isiltasunez baiesten edo ezesten den egunaren biharamunetik.”

Planteatutako bi ebazpideen artetik, aldezleak bigarrena gomendatu gura du, hau da, ezartzea gobernu-kontseiluaren ebaluazio berezirako epaimahaiaren errekurtsua jarri ahal izateko epea hainbat egunen epea dela, ikastegiko ebaluazio berezirako epaimahaiaren erabakia jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasi beharrekoa. Idazketa honen bidez, ezabatu egin da egutegiaren eragina.

Ikasleen kontseiluak planteatutako bigarren gaiari heldu aurretik, erakunde honek agerian jarri nahi du, ebaluazio berezirako epaimahai nagusiaren kontrako goranzko errekurtsua egun arautzen duen idazketak sortzen duen nahasmena. Gestiorako arautegiaren 54.6 artikuluan dio ezen “Epaimahai berezi zentralaren erabakiaren aurka, gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango da ikasleen arloko eskumena duen errektoreordetzaren aurrean hilabetearen epean.” eta geroago, arautegi bereko 55.2 artikulua xedatzen du ezen “ikaslea ados ez badago, gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango dio errektoreari. Hilabeteko epea izango du horretarako, gobernu-kontseiluko epaimahai bereziak bere erabakia jakinarazten duenetik hasita.” Erakunde honek gomendatzen du argi eta garbi arau dadila ebaluazio zentralerako epaimahaiaren (edo gobernu-kontseilukoaren) erabakiaren aurkako goranzko errekurtsua, ikasleei ezelako duda-izpirik gera ez dakien errekurtsua zer organoren aurrean aurkeztu behar duten, edo ikasleen errektoreordetzaren aurrean edo errektorearen beraren aurrean.



Ebaluazio berezirako epaimahaiaren erabakiak motibatzeari dagokionean, erakunde honek funtsezko deritzo administrazio-erabakiak motibatzeari, bereziki ezetsi beharreko erabakiak direnean edo jarritako administrazio-errekurtsoak direnean.

Motibazioari esker, administratuak jakinen du ebazpena ematen duen organoaren arrazonamendua eta berori indarreko legeriarekin bat datorren, arbitrariedade edo faboritismoetan oinarritutako erabakiak zailduz. Aldezlearen iritziz, erabaki motibatuak pertsona guztiek oro administrazio publikoei eskari edo administrazio-errekurtsorik aurkezterakoan duen eskubidea da eta honelaxe adierazten du, biziki adierazita ere, UPV/EHUren gobernu edo ordezkari-organoei emaniko erabakiak direnean.

Honez gain, ebaluazio berezirako epaimahaiak emaniko erabakien kasuan, prozedurak berak, 57.3 artikuluan, aurreikusten du epaimahaiaren erabakiak, kasuan kasu, behar bezala motibatu behar direla eta aktan jaso ere jasoko direla.

57.3 artikulua.- "Idazkariak bileraren akta egingo du, kasu bakoitzean hartutako erabaki arrazoitua jasota. Erabakia eskariaren aldekoa edo kontrakoa besterik ezin izango da izan".

57.4 artikulua.- "Akta helaraziko zaie prozeduran interesatuak diren guztiei".

Beraz, epaimahaiak eskari bat ebazten duenean, erabakia motibatu eta aktan jaso behar du. Horregatik, motibazio hori bera, interesatuari jakinarazitako erabakian jasotzea besterik ez da falta, erakunde honek berebiziko garrantziaz gomendatu gura duen aldaketa izanik. Nolanahi ere, motibazio hori interesatuari behar bezain argi adierazten ez bazaio ere, pertsona hori bilerako aktaz baliatu ahal da, arautegiaren arabera, aktak argitaratu eta publiko baitira. Akta hauek eskatuz gero, eskuragarri behar ditu zuzenbidezko interesik agertu duen edozeinek, osterantzean, gestiorako arautegi akademikoa urratuko litzateke.

Eraginkortasunari zor zaizkion zioengatik, egoki ikusten da ikastegiko ebaluazio berezirako epaimahaiaren erabakiak, ebaluazio berezia eskatu duen pertsonari jakinaraztean, hartutako erabakia hartzeko erabili diren zioen berri ahalik eta zehatz ematea, gerora aktak ikusi eta, zenbait kasutan, ebaluazio berezirako epaimahai zentralari automatikoki egin beharreko errekurtsioa egiteko tramiteak ekidinez, interesatua lortutako erantzunarekin ados geratuko baita jada.

Zerbitzu honek berretsi nahi du ezen motibaziorik ezak alferreko tramite gehigarriak eta ia-ia automatikoak eragiten dituela; gure unibertsitateak eskaintzen duen prozedura hau, elementu bereizgarri gisa eta ikaslearentzako berme bikoitza izan ordez (hasiera batean, ikastegiko ebaluazio berezirako epaimahaitik iragan ostean ebaluazio berezirako epaimahai nagusira jo ahal izatea) sobera burokratizatutako prozesu bihurtuz.

Ebaluazio berezia eskatzen duen pertsonak, bestelako azalpenik gabe aurkako erabakia jasotzerakoan, epaimahaiaren bilerako akta eskatuko du eta, hau ematen ez bazaio, oro har ebaluazio berezirako epaimahai nagusira joko du, bere arrazoi zehatzei zeharo heldu ezinean gainera, eta bigarren epaimahai honek, ebatziko badu, eskatu beharko dio ikastegiko ebaluazio



berezirako epaimahaiari kasuan kasuko espedientea, hari berak hartutako erabakiaren arrazoi eta zioen kontu ematera behartuz.

Gestio akademikorako arautegitik ondorioztatzen da ikastegiko ebaluazio berezirako epaimahaiak aintzat hartu behar dituela, erabakia hartzerakoan, eskatzaileak aurkeztu dituen alegazioez gain, irakasgaiaren ardura duen sailak egindako txosten arrazoitua eta kasuan kasuko pertsonaren espedientea. Aldezleak gomendioa egiten die sailei txosten hau ardura eta arreta bereziaz egin dezaten, hartara epaimahaiari txosten xehatu eta oinarritua eskainiz non oinarrituko ahal duen ebaluatzeko eginkizuna, ikasleak ebaluazio bereziaz gainditu gura duen irakasgai izandako portaera egiazki zer-nolakoa izan den jakiteko bidea emanik.

Honez gain, 54.4 artikulua dio ezen "Epaimahai bereziak ikasturtez ikasturte irizpide bereberei eusten diela bermatzeko, gutxien dela, kideetako bik epaimahaian jarraituko dute hurrengo ikasturtean. Gainerakoek ikasturtea amaitzean utziko dute kargua". Horregatik, epaimahaiak zenbait irizpide baliatzen du, seguruenik, ikastegiz ikastegi aldatuko direnak. Bada, irizpideen batasuna, objektibotasuna, inpartzialtasuna eta administrazio-eraginkortasuna bermatuko badira, komenigarri litzateke irizpideok esplizitu eta publikoak izan daitezen; hortaz, eskatzailea, eskaria bera aurkeztu aurretik ere, jakinaren gainean egongo delarik eta jakinen ditu eskaria balioesterakoan erabiliko diren irizpide zehatzak eta, aldi berean, irizpideok aplikatu behar dituzten epaimahaiko kide guztiek ere aldez aurretik jakin litzakete, epaimahaitik epaimahaira bertan dirauten kideek, soil-soilik irizpideon transmititzeko helburuaz, transmititu beharrik izan gabe.

Espainiar eta europar unibertsitate askotan dago ezarrita ebaluazio berezirako prozedura. Unibertsitateen legeak, askatasun akademikoaren printzipioaren kariaz, eskudun egiten ditu unibertsitateak, zein bere ikasleak onartzeko baldintzak, bertan irauteko erregimena eta jakintzak balioesteko erak ezartzeko. Ebaluazio bereziaren bidez erantzuna eman nahi zaie, ikasleren bati kreditu-portzentaia txiki bat ez gainditzeagatik titulua lortzerik eragozten dioten egoerei, ikasle horrek izandako ibilbide orokorrari so eginez, titulazioan zehar izan duen etekina aintzat hartuta.

Aldezleak jakin badaki ebaluazio berezia salbuespeneko prozedura da non irakasgai bat gainditzeko pertsona eskatzailearen egoera berezia aintzat hartzen baita eta, hortaz, ezin orokor daitekeela espediente bakoitzaren erabakia, kasuan kasuko kasuistikaren arabera baliatu behar delako. Baina, era berean, ezin ahantz daiteke prozedura honetara ikasle ugarik jotzen duela eta, kasu guztietan oro, aldeko edo aurkako erabakia eman behar dela. Beraz, berez eta agerikoa da epaimahaiko kideek nolabaiteko irizpideak aplikatu beharko dituztela eman beharreko erabakia emateko. Erakunde honen aburuz, komenigarria da UPV/EHUko ikastegi guztiek gutxieneko irizpide bateratuak izan ditzaten ebaluazio-irizpideei dagokienean.

Ez dagokio honako zerbitzu honi, titulazioko kredituen % 85a gainditu duen pertsonari irakasgai bat ebaluazio bereziaren bidez baliokidetu behar zaion erabakitzeko irizpide zehatzak ezartzea, baina oso gertatzekoa da ikastegi guztietan zenbait alderdi aintzat hartu ahal izatea, hala nola: espediente akademikoan batez besteko kalifikazio nahikoa, gainditu beharreko azken irakasgai izatea, titulazioan zehar ikasketekiko agertu duen interes edo erregulartasuna, ikasketak burutu eta aurrera eramateko lan-egoera edo egoera pertsonal ezegokia, irakasgaiaren arduradunaren edo saileko beste irakasle batzuen aldeko txostena eta eskatzaileak berak, bere egoera eta



irakasgaiarekiko problemak agerian jarriz egindako aurkeztutako alegazioak. Segurua da irizpideak egon badirela eta ikastegi bakoitzeko ebaluazio berezirako epaimahaiak aplikatzen dituen. Hortaz, irizpideon inguruan, gomendatzen da ikasleak oro jakinaren gainean jartzea.

Honek ez du esan gura, hala ere, ebaluazio berezia kasuak erabakitzeko prozesu mekaniko bihur dadin nahi denik. Jada berretsi da idazki honetan berori, izenak berak adierazten duen legez, ebaluazio ezohikoa dela, salbuespenezko egoeretan ez beste inoiz baliatu beharrekoa, elkarren artean askotarikoak, baina, nolana ere, ohikotasunik atekoa dena eta, ondorioz, arreta eta ardura bereziaz aztertu beharrekoa. Honako honetan planteatu nahi dena da prozesu honetako gardentasuna areagotzea eta prozedura honek ukitutako pertsonen joko-arauak hobeto ezagutzea. Baina, jakina, ulertu egiten da arau hauek malgutasunez aplikatu behar direla, irakasgai baten ebaluazio bereziaz gainditzeko aintzat hartu behar diren egoera berezi ugari eta askotarikoak aintzat hartuko badira.

Honen guztionen ondorioz, aldezeak **GOMENDATZEN DU:**

1. **Akademia-antolakuntzarako errektoreordetzari,**

- a. Gradu eta lehenengo eta bigarren zikloetako irakaskuntzaren gestio-arautegiaren 55.2 artikulua alda dezala, idazki honetan iradokitako ildotik, erabaki baten jakinarazpen-data aintzat hartu eta, hortaz, administrazio-errekurtsoa jartzeko epea abiaraziz. Erakunde honek ez du zehaztu nahi prozeduraren xehetasunik, errekurtsio horretarako epeak izan behar duen egun-kopurua zehaztuz, zehaztasun hori kasuan kasuko organoaren eskuduntza baita. Aldezeak erabakia jakinarazteko data aintzat hartzeko gomendioa besterik ez du egiten, errekurtsioa aurkeztu ahal izateko epea kontatzen hasi ahal izateko eta epe hori lanegunetan konta dadin, ikasleek ebaluazio berezirako epaimahai zentralaren aurrean egin daitekeen errekurtsioa aurkezteko duten eskubidea egiazkoa izango bada eta eraginkorra, behar besteko epea izanik, jakinarazpena atzeratu edo jaiegunak direlako urrituko ez den epea.
- b. Gradu eta lehenengo eta bigarren zikloetako irakaskuntzaren gestiorako 2012-2013ko arautegiaren 54.6 artikulua edo 55.2 artikulua aldatzea, argi gera dadin ebaluazio berezirako epaimahaiaren erabakiaren aurkako goranzko errekurtsioa zer organoren aurrean aurkeztu behar den.

2. **Gobernu-kontseiluari,** ezen jarraibide bateratuak eman ditzala UPV/EHUko ikastegi guztiek ebaluazio berezirako epaimahaiak jasotako eskarien ebazterakoan kontutan hartu behar dituzten irizpideak onetsitakoan aintzat har ditzaten, eta, jarraibide horien artean, ikastegi bakoitzeko ebaluazio berezirako epaimahaiari eta ebaluazio berezirako epaimahai zentralari hartutako erabakien motibazioa sartzeko betebeharra jakinaraz dakiela,



alferreko tramite gogaikarriak ekiditeko eta ikasleei unibertsitate-organoek hartutako erabakien zioak jakiteko eskubidea bermatzeko, bai eta hauen aurkako defentsa izatekoa ere, administrazio-prozeduran aurreikusitako errekurtsuez baliaturik.

3. **Ikastegietako ebaluazio berezirako epaimahaietako arduradunei**, ezen onets daitezela tokian tokiko ikasleek bete behar dituzten irizpide edo betebeharrak espezifikoak, ebaluazio berezirako eskariak aldeko ebazpena izango badu eta argitara eta jakinaraz dakizkien ikastegiko ikasleei.
4. **Sailei**, ezen ikastegiko ebaluazio berezirako epaimahaiko buruak irakasgaiaren ardura duen sailari txosten arrazoitua eskatzen dioenean, jar dezatela epaimahaiaren eskuetan txosten xehatu eta oinarritua, epaimahaiak egin behar duen eginkizuna behar bezala egin ahal dezan, ikasleak irakasgaiaren izan duen portaera zein izan den dakielarik.
5. **Ikastegietako ebaluazio berezirako epaimahaiei eta ebaluazio berezirako epaimahai nagusiari**, ezen norberak hartutako erabakien motibazioa ager dezatela, eskatzaileak egindako eskaria ezetsi beharrekoetan bereziki argi eta zehatzak izan daitezzen.

**Fdo.: Itziar Etxebarria**  
UPV/EHUko Aldezlea  
Aldezle de la UPV/EHU